



- ▶ Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)
- ▶ Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

## DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN 18. ZINEMALDIKO GAZTE EPAIMAHAIAN PARTE HARTZEKO IZEN-EMATEA IREKITA DAGO

***Gazte Epaimahaian parte hartzeak unibertsitateko kredituak lortzeko aukera ematen du. Izen-emate epea martxoaren 31ra arte zabalik da.***

Gazte Epaimahaia 18 eta 30 urte arteko 150 gaztek osatuko dute. Apirilaren 23 eta 30 bitartean egingo den Giza Eskubideen Zinemaldiaren 18. edizioaren baitan Nazioarteko Lehiaketan film labur onenari saria emateko ardura izango dute.

Gazte Epaimahaian kide izateko [www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) webgunean izena eman behar da. Epea **martxoaren 31ra** arte irekita dago. Hurrengo egunean, hau da, apirilaren 1ean izena eman duten guztien artean zozketa egingo da, eta irabazleen izenak zinemaldiko webgunean ezagutzera emango dira.

Aurreko urteetan bezala, Gazte Epaimahaian parte hartzeak unibertsitateko **ECTS** kredituak jasotzeko aukera emango du. Era honetan, Gazte Epaimahaian parte hartuko duten Euskal Herriko Unibertsitateko (**UPV/EHU**), **Deustuko Unibertsitateko** eta Ikus-entzunezko graduako **Mondragon Unibertsitateko** ikasleek ECTS kredituak izango dituzte.

Horrezaz gain, epaimahaikide lana egingo duten gazteei Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren 31. Asteko Victoria Eugenia Antzokiko saioetarako bi abonua emango zaizkie.

Film labur onenak 3.000 euroko saria jasoko du eta epaimahaiak giza eskubideen inguruko sentsibilizazioa eta zinemagintzaren kalitatea kontuan izango ditu. Lehiaketan hainbat herritatik eta nazioarteko zinemaldietatik etorritako gai sozialei buruzko film laburrek parte hartuko dute.

Proiektzioez gain, beste hainbat jarduera ere izango dira: solasaldiak, tailerrak eta erakusketak, besteak beste.

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia Donostiako Udalak antolatzen du Giza Eskubideen Bulegoaren eta Donostia Kulturaren bitartez, giza eskubideen inguruan kontzientzia kritikoa bultzatu nahi duelarik, bizikidetzaren aniztasunean, justizia sozialean, elkartasunean, askatasunean eta aukera-berdintasunean oinarritutako gizartea eraikitzen laguntzeko helburuarekin.



▶ Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

▶ Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

## ABIERTO EL PLAZO DE INSCRIPCIÓN PARA PARTICIPAR EN EL JURADO JOVEN DEL 18º FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS DE DONOSTIA

***Ser jurado joven posibilita la obtención de créditos universitarios. El plazo de inscripción finaliza el 31 de marzo.***

Alrededor de 150 jóvenes de entre 18 y 30 años compondrán el Jurado Joven que elegirá el mejor corto del Concurso Internacional de Cortometrajes del 18º Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián, que este año se celebra entre el 23 y el 30 de abril.

Para formar parte del Jurado hay que inscribirse **antes del 31 de marzo** a través de [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus). Al día siguiente, 1 de abril, entre todas las personas inscritas se realizará un sorteo cuyo resultado se publicará en esa misma página web.

Como otros años, formar parte del Jurado Joven da derecho a obtener **créditos** del Sistema Europeo de Transferencia y Acumulación (**ECTS**) al alumnado de la **UPV/EHU**, de la Universidad de **Deusto** y del grado de Comunicación Audiovisual de **Mondragon Unibertsitatea**.

Asimismo, se entregarán dos abonos para las sesiones del Teatro Victoria Eugenia de la 31ª Semana de Cine Fantástico y de Terror de San Sebastián a los y las jóvenes que hagan de Jurado Joven.

El premio al mejor cortometraje está dotado de 3.000 euros y el jurado valorará los largometrajes según criterios de sensibilización sobre los derechos humanos, así como de su calidad cinematográfica. En esta edición, compiten cortos de temática social procedentes de diferentes países y festivales internacionales.

Además de las proyecciones se organizan diferentes coloquios, talleres y exposiciones.

El Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián está organizado por el Área de Derechos Humanos del Ayuntamiento de San Sebastián y Donostia Kultura. Pretende impulsar una conciencia crítica en torno a los derechos humanos, así como ayudar a construir una sociedad basada en valores como la solidaridad, la diversidad, la justicia social, la libertad o la igualdad de oportunidades, entre otros.